

PRENTSA OHARRA: 2026.02.04

Damaris Pan eta Matthias Malefond artistak aukeratu dituzte Kometaken lehen edizioan

- **Kometak kultur lankidetzaz, sortzaileen mugikortasuna eta mugaz gaindiko elkarlan sareak indartzeko asmoz sortutako proiektua da**
- **Etxepare Euskal Institutuak, Uharte Zentroa eta Zébra3-rekin batera sustatutako proiektu honek Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen babesa du**

Donostia, 2026ko otsailaren 4a. Etxepare Euskal Institutuak, Uharte Zentroak eta Zébra3 erakundeak gaur jakinarazi dute Kometak proiektuaren lehen ediziorako hautatutako artistak zeintzuk diren. Ekimenaren helburua da Euskadi, Nafarroa eta Akitania Berriaren arteko kultur lankidetzaz indartzea, sortzaileen mugikortasuna sustatzea eta mugaren bi aldeetako kultur eragileen arteko elkarlan-sare egonkorrak eraikitzea.

Lehen edizio honetan, Kometak proiektua egonaldi artistikoen truke baten bidez gauzatuko da, eta Damaris Pan (Euskadi) eta Matthias Malefond (Akitania Berria) izango dira ekimenaren protagonistak.

Deialdi publiko baten bidez hautatu dituzte, aurkeztutako 58 proposamenen artean. Hautaketa-batzordean erakunde antolatzaileetako ordezkariak ez ezik, Peio Aguirre komisario eta editoreak eta Elsa Oliarj-Ines zinemagile eta artistak ere hartu dute parte.

Ikerketa eta esperimentazio artistikora bideratutako egonaldi hauek sei asteko iraupena izango dute, eta 2026ko apirila eta maiatza bitartean gauzatuko dira. Damaris Panek apirilaren 13tik maiatzaren 24ra garatuko du bere proiektua Bordeleko Zébra3

arte garaikidearen zabalkunde eta ekoizpenerako zentroan, Matthias Malefondék, berriz, apirilaren 6tik maiatzaren 15era egingo du bere egonaldia Nafarroako Uharte Zentroan, arte garaikidearen ikerketa eta esperimentaziorako gunean. Denbora horretan, hautatutako artistek beren ikerketa- eta sorkuntza-prozesuak garatuko dituzte, eta ondoren jendaurrean aurkeztuko dituzte, egindako lanaren eta esperientziaren mugaz gaindiko izaera nabarmenduz.

Kometak #1: hautatutako proiektuak

Damaris Pan, ‘Derrapaje metafórico’

Bere egonaldian, Damaris Panek pintura izango du ardatz, eta praktika piktorikoaren izaera espekulatzailea eta gaur egun margotzeak dakartzan kontraesanak abiapuntu hartzen dituen lana garatuko du. Esperientziaren, zuzeneko esperimentazioaren eta hausnarketa kritikoaren artean mugitzen den proiektua izango da.

Egonaldian zehar, bere lanak testuinguruarekin, pinturaren gatazka historikoekin eta harreman-sare batean parte hartzearekin sortzen dituen frikzio-prozesu berriak aztertuko ditu. Hizkuntzari erreparatuko dio hura bihurritzeko, bere baldintzei buruzko hausnarketa ahalbidetuz. Proiektuak zentzumenak jartzen ditu erdigunean, gozamen estetikorako funtsezko bide gisa. Umorez, baina oso serio.

Damaris Pan Mallabian jaio zen 1983an. Bere lana *Oalddilal V* (Museo Patio Herreriano, 2024), *Male Male* (Fermay, Palma de Mallorca, 2023), *Un martillo en la cabeza* (Ana Mas Projects, Bartzelona, 2022) edota *Cuernos a la vista* (BilbaoArte, 2020) bezalako bakarkako erakusketetan aurkeztu da. Parte hartu duen erakusketa kolektiboen artean *El árbol de lo que aún no sabes* (CaixaForum Barcelona, 2023) eta *Bi Dos Two* (Azkuna Zentroa, 2018) nabarmentzen dira.

Egoitza artistikoak egin ditu Sichuan Fine Arts Institutuen (Txina, 2019), Art OMIn (New York, 2018) eta Kunsthochschule Weissensee-n (Berlin, 2005). 2024an BMW Pintura Saria jaso zuen, eta 2021ean GURE ARTEA Saria.

Bere lana estatu mailako eta nazioarteko bildumetan aurki daiteke, eta hainbat argitalpen espezializatutan ere jaso da. 2014an bere doktore-tesia defendatu zuen, *Lo Bueno, lo Bello, lo Berdadero* izenekoa, non desbideratzea oinarri artistiko gisa jorratu zuen.

Gaur egun, Bilbon bizi da, eta bertan garatzen du bere praktika artistikoa. Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateko Pintura Saileko irakaslea da.

Matthias Malefond, 'Formation and Deformation of Oralities'

Bere egonaldian zehar, Matthias Malefondak soinu instalazio eta instalazio plastiko batean gauzatuko den ikerketa eta sorkuntza proiektua garatuko du. Bertan tradizioak denboran izoztutako ondare gisa baino, aztarna eta narrazio aldakor bezala landuko ditu.

Euskal kantu tradizionalen motibo eta egituretatik abiatuta hainbat soinu pieza konposatuko ditu Malefondak, eta bertako materialak erabiliz zanfona bat egitea ere aurreikusten du. Aipatutako kantuen mikro tarteak eta ezaugarriak esploratuz, proiektuak tradizioa eta musika garaikidearen arteko elkarrizketa ezarri nahi du.

Proiektua soinua eta egonaldian zehar egindako planoen proiektzioa uztartuko dituen gailu espazial batekin osatuko da, espazioa artxibo izaera duen ingurune bilakatuz. Instalazio honen bidez memoria kolektiboaren aztarna ikusezinak agerian jartzea da bere asmoa.

Proiektuaren ikuspegia berau garatzen den testuinguru natural, sozial eta materialari estuki lotutako praktika batean oinarritzen da, topaketari eta esperimentazioari irekia dagoena. Honenbestez, egonaldia lurraldeen arteko elkarrizketak ehuntzeko eta sorkuntza artistikoaren bidez lotura horiek gauzatzeko aukera gisa ulertzen du.

Matthias Malefond 2001ean jaio zen, Limousin eskualdeko (Frantzia) landa-ingurunean. Eguneroko esperientziak inguruan zituen keinu ruralekiko interesa goiz garatzea ahalbidetu zion. Ondoren, Bordelera joan zen bizitzera, eta han Arte Ederretako Eskolan bost urtez ikasi zuen. Garai hori erabakigarria izan zen

Malefondentzat aipatutako keinu horiekiko distantzia kritikoa hartzeko eta bere praktika artistikoa osatzen duten objektuei buruzko begirada fintzeko.

Bere lana instalazioaren, soinuaren eta eskulturaren arteko gurutzagunean kokatzen da, azken hau espazioen, gainazalen eta materialen arteko elkarrizketa gisa ulertuta. Materiarekin duen harreman fisikoaren bidez, bere praktikak eskulturaren ezaugarri sonoroak aztertzen ditu, higadura, dentsitatea eta alea memoriaren eroale gisa ulertuta.

Bere praktika artistikoak aztarnetan, arrastoetan, hondarretan, kultur eta ahozko tradizioetan, eta soinuan agertzen du interesa; denboran zehar iraun eta eraldatzen den horretan guztian. Musikak leku zentral bat hartzen du bere lanean, mugarik gabeko hizkuntza gisa ulertzen baitu. Ikuspegi honek bere metodologia eta eskulturara hurbiltzeko modua eraldatu ditu.

Mugaz gaindiko kultur-lankidetzak

Etxepare Euskal Institutuak sustatutako Kometak proiektuaren izenak Bigarren Mundu Gerran sortutako Comète sareari egiten dio erreferentzia; sare horrek aliatuen pilotu eraitsiei muga zeharkatzen laguntzen zien. Erreferentzia hori kulturaren eta sorkuntza artistikoaren metafora gisa baliatzen da, elkarlanean eta sarean jardutean, kultura eta sorkuntza norabide berriak seinalatzeko eta beren eragina biderkatzeko gai diren indarrak direla azpimarratzeko.

Proiektua Akitania Berria–Euskadi–Nafarroa Euroeskualdeak kofinantzatzen du, eta haren parte-hartzeak Kometaken izaera estrategikoa indartzen du mugaz gaindiko kultur lankidetzako politiken baitan.

Uharte Zentroa eta Zébra3 erakundeen parte-hartzearekin abiatu den lehen edizio honek jarraipena izango du etorkizunean. Izan ere, Kometak beste diziplina artistiko batzuetara zabaltzeko, bazkide berriak batzeko eta lurraldean kultur lankidetzako sare egonkor gisa sendotzeko helburuarekin sortu da.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da, eta bere eginkizuna da euskara, euskal kultura eta euskal sorkuntza nazioartean proiektatzea, eta hauen bidez beste eskualde, herrialde eta kulturekin harreman sendo eta iraunkorrak eraikitzea. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, sortzaileen, artisten eta kultura eta sormen industrietako profesionalen mugikortasuna bultzatzen du, eta euskal ikasketak sustatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko lankidetzak sustatzen du, bai kultura arloan bai unibertsitatearen esparruan.

Antolatzaileak:



Babeslea:



Info +

Komunikazio saila
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus